

Munduko Hizkuntzaren Ondarearen UNESCO Katedra UPV/EHU
Munduko hizkuntza-leihoak

HIZKUNTZA: QUECHUERA


Autoglotonimoa: runa shimi.

Erabilitako beste zenbait izen: quechua. Runa shimi terminoak, autoglotonimoa, gizakien hizkuntza esan nahi du. Hizkuntzaren izena beste era batzuetan ere idazten da, hala nola, quichua edo kichwa, bereziki Ekuadorren.

Askorentzat *quechuera* hizkuntza-taldea den arren (Lewis, 2009; www.ethnologue.com), hiztunek hizkuntza bakartzat daukate. Nola nahi ere, Ekuador eta Argentinan, hizkuntza hau quichua edo kichwa izenarekin ezagutzen da eta quechuatik desberdintzen da, hiztunek ere horrela nahi ei dutelako (Uranga *et al.*, 2007).

LURRALDEA ETA HIZTUNAK

Quechuera 7 edo 8 milioi lagunek hitz egiten dute Andeen inguruan, Ekuadorren, Perun, Bolivian, Argentinan eta Txileko iparraldean.



Maparen iturria: Uranga *et al.*, 2007.

Bolivian bi milioi inguru ei dira hiztunak, Perun hiru edo lau milioi, Ekuadorren milioi batetik gora, Argentinan ehun milatik gora eta Txilen gutxi batzuk. *Quechueradun* askok eta askok utzi egin dute euren lurraldea Europara eta Estatu Batuetara joateko bereziki. Amerikako hizkuntzetatik berau da hiztun kopuru handiena duen hizkuntza.

HIZKUNTZAREN EGOERA

Bolivian eta Perun ofiziala da *quechuera*, eta Ekuadorren quichuera, baina, halere, ofizialtasun horrek ez dio oraingoz onura handirik ekarri hizkuntzari.

Quechueraz hitz egiten duten lagunen aurkako bazterketa garai kolonialetakoa bezain handia da gaur egun oraindik ere lurralde gehiengan, nahiz azken urteotan gobernu batzuen jarrera zerbait aldatu den arren. Perun nabarmena da gobernuaren axolagabekeria *quechueraren* eta *quechueradunen* aurka, ez baita hizkuntza hau administrazioan erabiltzen ez bultzatzen. Gauza bera gertatzen da Argentinan, Txilen eta Ekuadorren. Bolivian, bestalde, badirudi gauzak aldatzen hasi direla, baina motel, oso motel.

Quechueradunek landa eremuan erabiltzen dute bereziki, eta hirian lotsa izaten dute hizkuntzari atxikitzeke eta berau erabiltzeko. Lotsa hori, noski, mendeetan zehar jasandako bazterketaren emaitza baino ez da.

Jakin behar da, europarrak bertara heldu aurretik *quechuera* Inken Inperioko hizkuntza izan zela, eta zabalkunde handia izan zuela horri esker.

HIZKUNTZAREN SAILKAPENA

Hizkuntza amerindiarra da, eta ez du senitarteko ezagunik. *Quechuera* eta quichuera, batzuentzat hizkuntza bakarra izanik, hizkuntza bi beregain direnentzat talde berekoak dira.

HIZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

SOA (subjektua-objektua-aditza) hitz hurrenkerako hizkuntza da, eta bere gramatika kontuetan oso erregularra den ospea du. Euskararen antzera, hizkuntza eransgarria da, eta beraz, erroari atzizkiak erasten zaizkio, hurrengo esaldian ikus daitekeen bezala:

puma uwiha-ta suwa-ku-n
puma (subjektua) ardi-objektua lapurtu-ekintza.marka-S1s.(O3s = Ø)
'pumak ardia lapurtu du'

Quechuerak ez du genero morfologikorik izen sintagmetan, euskarak eta ingelesak legez. Numeroa badu, eta *-kuna* atzizkiaren bidez markatzen da pluraltasuna, euskaraz *-k* erantsiz edo ingelesez eta gaztelaniaz *-s* erantsiz egiten den bezalaxe.

qan (zu) > qankuna (zuek)

Deklinabidean kasu hauek ditu: nominatiboa (markarik gabea), akusatiboa (-ta), datiboa (-paq), genitiboa (-pa / -q), kausazkoa (-rayku), ablatiboa (-manta), lokatiboa (-pi), ilatiboa (-man), muga adlatiboa (-kama) eta instrumentala (-pu)wan).

Aditz guztiek paradigma berbera jarraitzen dute, eta aditzean subjektuaren eta objektuaren markak jartzen dira. Edozein hitzi *-y* erantsiz aditza sortzen da:

suwa (lapurra) > suway (lapurtu)

Fonologia arloan ezaguna da *quechuerak* bokal sisteman duen berezitasuna, hiru bokal baino ez baitu: e/i, a eta o/u. *Quechueraren* eta *quichueraren* arteko berezizirik behinena honetan datza, hain zuzen, *quecherak* a, e, o bokalak gauzatzen dituela eta *quichuerak*, aldiz, a, i, u.

HIZTEGITXOA

muyuq / chusaq, hoq, iskay, kinsa, tawa, pisqa, soqta, qanchis, pusaq, isqon, chunka, chunka hoq-ni-yoq, chunka iskay-ni-yoq

0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12

alqo, erqe, llaqta, mama, ñaña, pana, runa, sipas, tayta, tura, ukuku, ususi, wasi, wawa, wayna, wayqe

txakur, ume, herri, ama, ahizpa, arreba, gizaki, neska, aita, neba, hartz, alaba, etxe, seme, mutil, anaia

Quechueratik hartu ditugun zenbait hitz: kanoa, alpaka, kondor, puma, besteak beste.

IDAZKIA ETA AHOTSA

Toray Thopa Amaru

Micaela Bastidas, sutinpi,

llakisqa willakusiayki,

sipiyaytapuni munanku

¡manan ch'awchichukayku...

awqakuna sillunmanta!

yapamanta machashianku

yawarninchiswan suwakuna

sonqonchista sarunchaspa

qhatunku kausayninchista.

¡llapan chukukukusiayku!

¿maypin kanki Thopa Amaru?

q'omalli kausayta kuchuwashianku

qanta hina mat'awanku

¡ismusqa kamachiqkuna!

Thopa Amaru kawsariy

Anaia Thopa Amaru

Micaela Bastidasen izenean

nire negarra helarazten dizut,

beti akabatu nahi gaituzte.

Oraindik aske gara

zapaltzailearen menpetik!

Behin eta berriro mozkortzen dira

geure odolaz lapurrak,

geure duintasuna iraintzen dute,

geure etorkizuna alperrik galtzen dute.

Ikaratuta gaude!

Non zaude Thopa Amaru?

Lapurrek gure bizitzak akabatzen dituzte

zu bezala zatikatuz.

Aginte ustela!

Berpiztu zaitez Tupac Amaru!

ERAKUNDEAK ETA ESTEKAK

www.runasimi.net

www.runasimi.de/

www.runasimi.org/

www.quechua.org.uk

www.runasimi.de/runaespa.htm

www.universidadperu.com/academia-quechua-yachay-wasi.php

<http://amlqrl.blogspot.com/>

www.yachay.com.pe/especiales/quechua/

<http://hablaquechua.blogspot.com/>

ERREFERENTZIAK

Lewis, M. Paul (arg) (2009) *Ethnologue: Languages of the World*. Sixteenth edition. Dallas, Texas: SIL International.

Uranga, Belen, Barreña, Andoni, Idiazabal, Itziar, Amorrortu, Estibaliz, Ortega, Ane eta Izagirre, Estibaliz (arg.) (2007) *Amerikako hizkuntza aniztasuna. Mexikotik Hego Konoraino – La diversidad lingüística de América. De México al Cono Sur*. Donostia: Erein.

www.ethnologue.com